

PLAZA

» 44 ■ 'Sommer jaunaren istorioa' oinarri
Patrick Suskinden lana euskaratu du Lurdes Oñederrak
eta haren bertsioa antzeztuko du Jose Ramon Sorozek.

Liburuen argitaraldien jaitsierak duen arriskuaz ohartarazi du Torrealdaik

Euskal liburugintzak 1976tik 2005era izan duen bilakaera aztertu du, '30 urte liburugintzan' liburuan

ARANTZAZU MUÑOZA
Donostia


Euskal liburugintzaren azken 30 urteetan tituluek gora egin duten arren, tiradek nabarmen egin dute behera. Joan Mari Torrealdaiaren esanetan, argitaraldien beheranzko joera geratu ezean edizioa ezinezkoa izango da. 1981. eta 1985. urteen artean, nobedadeak eta berrargitalpenak kontuan hartuta, argitaraldiak 4.528koak izan ziren. 2001-2005 artean berriaz, 2.958koak. 80ko hamarraldi hasieratik 2000ko hamarraldi hasierara beraz, %34,67 egin dute behera argitaraldiek. Hori erakusten dute, besteak beste, Torrealdaik 30 urte liburugintzan liburu berrian (Jakin) jaso dituen datuek.

1976tik 2005era euskal liburugintzak izan duen bilakaera aztertu du Torrealdaik testu nahiz grafiko bidez. Egileak liburuaren aurkezpenean azaldu duenez, tiradak ez doaz behera Euskal Herrian bakarrik, mundu osoan baizik. Proporzionaliki, gainera, euskal liburugintzan tiradak beste leku batzuetan baino gutxiago doaz behera. «Gertatzen dena da gurean ehun galtzea eta espainolez mila galtzea ez dela gauza bera. Ziurrenik gurean ehun galtzeak inportantzia handiagoa du. Zergatik? Bada errentagarritasua-

na dagoelako jokoan. Liburu askorekin gertatzen da defizitarioak direla abiapuntuan bertan. Denak defizitario bihurtzen badira, ezin go da ediziorik egin. Momentu batetik aurrera edo prezioa izugarri igotzen da edo edizioak erabat subentziazionatzen dira, baina edizio sano bat nahi badugu, tiraden beheranzko joera horrek geratu beharra dauka. Bestela edizioa ezinezko bihurtuko da».

30 URTE LIBURUGINTZARI LOTUTA. Joan Mari Torrealdai hutsune bat bete-zearren hasi zen 1976an liburugintzaren alorrean lanean. Euskal gizartea aztertzeko klabeetako bat euskal liburu bera aztertea zela iruditzen zitzaion. «Liburuak hasiera oso garbia du: 1976. Hori euskal liburugintza berriaren abiapuntua da, baina baita ere nire azterketen abiapuntua». Bukaera 2005ean jarri du. 30 urte zifra borobila delako, batetik. «Gero, arrazoi pertsonalak daude. Nik ez dakit nire geroa zein izango den. Inork ez daki bere geroa zein izango den, baina nik beste askok baino posibilitate handiagoa daukat kartzelan bukatzeko».

Lau ataletan banatu du liburu Torrealdaik. Lehenengoan, azken 30 urteetan Jakin-en bildutako kezka nagusien sintesia egin du. Bigarrenean, 30 urte horietako datuak sartu ditu grafikoetan eta tauletan bilduta. Hirugarren atala berria da, liburuaren argitaraldiei eta aleei buruzkoa. Argitaletxei eskatutako datu errealetan oinarritutako azterketa kuantitatiboa egin du lehen aldiz. Azken atalean



Joan Mari Torrealdai, liburuaren aurkezpenean, Donostian. JUAN CARLOS RUÍZ / ARGAZKI PRESS

berriaz, euskal liburuaren behotkia sortzeko proiektuaren helburuak eta jarduerak zein izan beharko luketen definitu du.

Liburu irakurterraza izatea nahi zuen Torrealdai. «Uste dut hortik baduela zerbaite, aitortu du. «Lehen partea orain arte egin ditudan gogoeta edo kezka edo galderen laburpena da». Gai bat hartu eta haren inguruko gogoetak jaso ditu kronologikoki antolatu. «Gehiegi produzitzen al da euskaraz? Ala gutxiegi irakurtzen da? Ala biak dira egia eta zein neurritan bakoitza?». Horixe da Torrealdai liburuan plazaratutako kezketako bat. «Zenbat publikatzen da euskaraz? Jaisten ari da? Zein da maila egokia? Egiazki zer da kontsumitzen dena?».

Aztertu duen beste alor bat bertako eta kanpoko argitaletxeena izan da: «Ez al dira bi mundu? Zer produzitzen dute kanpokoek eta zer hemengoek?». Azkenik, betidanik planteatutako galdera egin du, askotan erantzuten inor ausar-

tu ez dena: «Euskaraz bakarrik bizi gaitzake? Euskaraz bakarrik irakurriz bizi gaitzake?». Torrealdai ez du erantzunik eman, galderak planteatu baizik. Liburu politikaren bat markatu nahiko balitz kontua izan beharreko galderak dira, haren ustez.

Liburuaren bigarren partean, euskal liburugintzaren irakurketari bikoitza egiteko aukera ematen du Torrealdai. Izan ere, testuez gain grafikoak sartu ditu azken 30 urteetako euskal liburugintzaren bilakaera lantzeko: «Errealitatea

«Argitaraldien gainean ateratzen diren zifrek askotan errealitatearekin ez daukate zerikusirik»

«Espero dut, denok hemen bagara, lortuko dugula datorren urtean liburuaren behotkia martxan jartzea»

JOAN MARI TORREALDAI
IDAZLEA ETA 'JAKIN' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

bera da, baina modu desberdinean agertzen da».

Euskal liburugintzaren tiraden eta ale kopuruen gainean ez da orain artean azterketa fidagarri-rik egin, Torrealdaik dioenez. Editorialak eura izaten dira sarri iturri eta haiek ematen dituzten datuak ez dira kontrastatzen: «Tiradei buruz edozer gauza irakurriko zenuten. Liburuaren azokak datozenean edo liburuaren eguna datorrenean edozer gauza esaten da. Ateratzen diren zifrek askotan errealitatearekin ez daukate zerikusirik».

Beraz, kontrastatutako informazioaren falta eta «sasi-informazioaren» ugaritasuna ikusita, liburuaren tiraden eta aleen auzia zehatzago aztertu nahi izan du: «Tituluaren informazioa lehendik ere baneu. Honekin tiradena eta ale kopururena lortu nahi izan dut. Eta ondorioz, fakturazioarena ere bai». Horretarako inkesta bana bidali zien euskal liburuak argitaratzen dituzten editorial guztiei. %80ek erantzun zioten: bi argitaletxe handik, eraintz batek eta txiki batek.

1976tik 2005erako urteak bosnaka zatitu eta zenbait galdera egin zizkien argitaletxeei. Argitaraldiak, liburu tipoa, liburuak lortutako arrakasta eta liburu mota izan behar zuten kontuan argitaletxeek, besteak beste. «Sistema konplexua da, baina errealitatera hurbiltzeko hoberena iruditzen zait».

Inkesten datuak hartu eta kontrastatu egin zituen datu errealekin. «Lau argitaletxeren sukaldaraino sartu eta horien datu errealekin kontrastatu dut hasierako informazioa». Egindako azterketaren bidez eskaintza editorial erreala zein den jakin du, zenbat ale jartzen diren merkatuan. «Industria kulturalaren ikuspegiariko inportantea da fakturazioa. Datu horiek argitaletxeren fakturazioan zer suposatzen duten kalkula daiteke eta hori jakinda bestelako estudio bat egin dezakegu».

EUSKAL LIBURUAREN BEHOTKIA. Liburuaren azken atalean proiektu baten berri ematen du Torrealdai: euskal liburuaren behotkiaren berri. Hark izango dituen helburuak eta jorratuko dituen alorrak zehazten dira. Liburuaren gaineako informazioa, azterketa eta gogoeta guztiek izango dute lekua behotkian. «Espero dut denok hemen baldin bagara lortuko dugula datorren urtean liburuaren behotkia martxan jartzea». Plana aspaldi aurkeztu zien erakundeei eta ez du izan erantzunik: «Lehen erabaki nuen aurrera egitea hutsunea zelako, orain ere hutsuneak segitzen duenez, aurrera egin beharko».

«Ale batzuk erostea ez da nahikoa»

Eusko Jaurilaritzak argitaletxei ematen dien diru laguntza nagusia erosketa bidezkoa izaten da. Edizioaren parte bat erosten du erdi prezioan, liburutegi publikoak hornitzeko. Laguntza hori «eskasa» iruditzen zaio Torrealdairi: «Laguntza hori liburutegiak hornitzeko sistema ona da, baina ez edizioak indartzeko».

Diru laguntzak emateko orduan tiradak neurtzen eta kontrolatzen ez direnez eta gutxieneko kopururik eskatzen ez denez, tituluak ugaltzen diren arren, horiek edizioari batere onik ez dakarkiola dio Torrealdai: «Izan zenezake 600eko tirada, 300 laguntza horretan sartzen dituzu, horrek 600eko tirada kubritzen dizu eta bakean geratzen zara». Diru laguntza hori ematekotan erakundek au-

kera bat egin beharko luketela uste du Torrealdai: «Filtro batzuk jarri beharko lirake. Tituluak da darabilten kriterio bakarra, baina titulu horien kalitatea ez da aintzat hartzen. Gero liburu hori hurrengo egunean ez duzu inon zabaldua ikusten, Jaurilaritzak hornitzen dituen liburutegietan ez besterik. Horrek ez du balio kultural handirik».

Torrealdaiaren aburuz, orain arteko laguntza ez da nahikoa eta produkzioa bera da indartu behar dena: «Bestelako laguntzak behar dira, edozein enpresatan planteatzen direnen modukoak. Kontsumoa areagotzeko sustapen bide sendoak markatu behar dira. Hori gutzia liburuari laguntza da. Ale batzuk erostearrekin ez da nahikoa».